

JUAN IGNACIO PEREZ

Deskribapena: Kike Juan Ignacio Perezekin unibertsitate kanpoan elkarrizketan ageri da.

Kike: “Euskal Herriko mugetatik kanpo jaioa izan arren, Salamancan hain zuzen ere, ederki asko daki euskeraz Juan Ignacio Perez de Iglesiasek. Juan Ignacio, zu biologoa zara”

Juan Ignacio: “Biologua bai.”

Kike: “Zein dira zientziaren hizkuntzak?”

Juan Ignacio: “Bueno zientziaren hizkuntza edozein izan daiteke segun zertarako erabiltzen duzun, orduan, baldin bada ikerketaren emaitzak, goi mailako emaitzak, eh, jakitera eman behar dituzula, orduan inglesa da. Zergatik? Ba zure irakurleak mundu osoan daudelako, gutxi direlako eta denek ingelesa erabiltzen dutelako. Baina zientziaren hizkuntza, eh, hizkuntza hezkuntza sisteman edo prestakuntzan baldin bada, edozein izan daiteke, gure kasuan, euskara, gaztelania o frantsesa eta gero bueno nik dibulgazioaz hitz egiten baldin badugu, zientzia gizarteratzeaz hitz egiten baldin badugu, berdin, esukaraz, osea ja herrietako edo nazio hizkuntzak izan daitezke eh, zientziaren hizkuntza.”

Kike: “Zientziaren dibulgazioaz ere arduratzen zara, nola iristen da zientzia herritarrengana?”

Juan Ignacio: “Euskarari dagokionez, batez ere nik esango nuke internet eta blogak oso tresna eraginkorra eta oso oso ona dela.”

Kike: “Eta interesa daukanak nora jo dezake?”

Juan Ignacio: “Bueno ba, bueno ni adibidez hasi nintzen nere lankide batekin duela sei urte edo blog bat idazten animalien biologiari buruz, uhandreak izenekoa baina gaur egun mantentzen duguna, Katedratik mantentzen duguna, Zientziakaiera da; Zientziakaieran biltzen ditugu oso material desberdinak, gai askotakoak, zientzia gaiak danak eta hain zuzen ere orain ari gara, eh, kultura zientifikoaren lehenengo jaialdia bultzatzen eta eramaten blog horretatik, beraz ikusi nahi duenak hor ikus dezake.”